

LIBURUTEGIKO FUNTZIONAMENDUA



Liburutegia ikastetxeko zerbitzua da eta guztiok bete behar ditugu bertako **arauak**:

- Liburutegian ezin da zaratarik egin, ezta jan edo edan.
- Liburutegian zaudenean, bai klase orduan bai atsedendian, materiala banaka hartuko duzu (liburu, hiztegia, entziklopedia, aldizkaria, egunkaria...), eta amaitzerakoan bere lekura bueltatu.
- Altzariak behar bezala erabili eta dauden tokian utzi.
- Institutuko beste geletan bezala Telefono mugikorra, mp4 eta beste tresna elektronikoak ezin dira erabili.

Mailegu-aldia:

1. Maileguan hartutakoa jaso bezala itzuli. Ez apurtu, ez idatzi, ez azpimarratu. Ez egin inolako zuzenketarik.
2. Liburuak 15 egunetan edukiko dituzu gehienez, halere irakurketa ez baduzu amaitu eta inork ez badu eskatu liburu berbera berriz eramateko aukera emango zaizu.
3. Mailegu kolektiboa: nahiz eta materialak taldeka lan egiteko izan, norbaiten izenean hartuko dira eta bera izango da materialen arduraduna.
4. Materialak itzultzeko epeak betetzen ez direnean, erabiltzaileak atzeratutako egun eta material bakoitzagatik, zigorra* jasoko du.
5. Materialak galdu edo hondatzen badira berriak eramango beharko dira liburutegira.
6. Kurtsoa amaitu baino 15 egun lehenago bueltatu behar dira mailegutako material guztiak.

ORDUTEGIA:

Aste osoan zabalik egongo da, ostiraletan izan ezik.

*Liburutegian ordenagailuak erabiltzeko aukera dago (lan egiteko noski)

*Zigorrak bai zaintzako irakasleek bai Zuzendaritzak jarri al dituzte. Hauen artean, liburutegiko zerbitzu guztiak erabiltzeko eskubidea galtzea dago. Baita kurtso amaieran maileguan hartutako materiala bueltatu arte, ikastetxeak kalifikazioen azken txostena gordetzeko aukera izango du.

*Guztion gauza da liburutegia eta erabiltzen diguten materialak zaintzea; honez gain funtzionamendu arauak betetzea izan ere liburutegia doako zerbitzua izan arren, materialak garestiak dira.